

BIZITZA

Domingo Aszension Agirre Badiola, «Txomin Agirre», Ondarroan jaio zen, 1864ean, ekonomi maila apaleko familia baten barruan. Aita, arotza lanbidez, mutrikuarra zuen, eta ama ondarrutarra. Ondarroa sasoi hartan zeharo arrantzari emandako herri txiro samarra zen, eta Txomin Agirreren bizimodua ere behartsua izan zen umetaro guztian. Kostaldeko giroak, ingurunekeo pobreak, eskasiak eta abarrek zalantzarik gabe eragin handia izan zuten Txominen izaera mamitzen: gizon apal, zintzo eta jatorra izan zen Txomin Agirre.

Lehen ikasketak herriko eskolan egin zituen eta, dirudienez, hasieratik sentitu zuen abadetzarako joera. Hala ere, familiaren diru-baliabideak ikusirik, ezinezkoa zitzaion herritik irten eta beste inongo seminariotara joatea, eta aitari bere arotz-zereginetan lagundu beharrean suertatu zen. Egun batean, ordea, berebiziko aukera sortu zitzaion Bilboko Artzipreste zen Mariano Ibarguengoitia bertara azaldu eta berarekin Bilbora morroi eta meзамutil

joateko proposamena egin zionean. Agirretarren pozerako halaxe gertatu zen, eta gainera gizon honi esker lortuko zuen gero Txominek Gasteizen 1884etik 1888ra Filosofia eta Teologia ikasteko beharko zuen diru-laguntza. Bertan adiskidetu zen Euskal Literaturaren munduko beste pertsonaia oinarrizko batekin, R.M. Azkuerekin, hain zuzen.

TXOMIN AGIRRE BADIOLA



Txomin Agirrek, familia pobre bateko seme bati zegokionez, ezin izan omen zuen Seminarioan nahi bezain luzaro iraun, eta «karrera laburra» eginda, orduko kategoria bereizkuntzen arabera, Karrantza aldera bidali zuten. Han epe laburra bete ondoren bere ordutik aurrerako bizitzaren gunea izango zuen Zumaiako Karidadeko Moja Karmeldarren ikastetxera joan zen kaperau. Gipuzkoako kostaldeko herri honetan, bertako giro lasaian gustora sentituz, sortu zituen bere lanik onenak. Ibili zen, bai, hara eta hona Euskal Herrian zehar, baina Zumaia mantendu zuen ohizko bizilekutzat, eta bertan hil zen 1920ko urtarrilaren 14ean.



INGURUGIROA

Txomin Agirreren izaera hobeto ulertzeko ezinbestekoa zaigu bera bizi izan zen garaiko giro historiko, politiko eta literarloari begiratu bat ematea.

Umea zela ezagutu zuen karlisten bigarren gerratea (1872-1876). Hau amaitutakoan, Euskal Herriari askatasun murrizte sasoia etorri zitzaion Foruen deuseztapenarekin. Honekin batera, ordea, kontrako erreakzio gisa edo, euskal kontzientziaren berpizkunde-garaia gertatu zen. Inoiz baino gogorrago paratu zen herria euskararen alde.

Euskal kultur mailan gorakada nabaria egon zen, kultur elkarte, aldizkari berri, lore-joko eta abarren agerpenarekin. Letra-munduan obra handiak sortu ziren: Kanpionen Gramatika, Manterolaren Kantategia... Iparragirre hortik zehar zebilen bere «Gernikako arbola» eta abar abestuz...

ONDARROA

Hondarroa da Txomin Agirre idazlearen jaioterra, eta bizitarik gehiena andik kanpo egin bazuen ere nabaria da haren idazlanetan sorterriaren oroitzapena.

Euskal letren munduak, beraz, bultzada handia jaso zuen, baina desadostasunak sortu zituen funtsezko arazo bat zegoen, hizkuntzarena berarena, hain zuzen. Garbizaletasun edo garbizalekeriaren auzia pil-pilean zegoen. Batetik, Sabin Arana eta bere jarraitzaileak zeuden, euskararen garbitasun-kontuetan mutur-muturreko jarrera zeukatenak, erdal kutsuko edozein hitz baztertu eta neologismoetara behin eta berriz jotzen zutelarik, ordurarteko euskal lan gehienak, erdarakadaz kutsatuak zirela-eta, arbuaiatuz.

AZKEN KARLISTADA

Agirrerren haurtzaroko oroitzapenen artean dago azken karlistadarena ere (1872-1875). Trajedia eta bizi-nahia, dena izan zen hura. Garaiko marrazki honetan, honela erakutsi zituen aldizkari madrildar batek Euskal Herriko soldaduak: gudu-tarte batean elkarrekin hizketan eta lagunartean, Murietan Nafarroa.

Bestetik, Azkueren iritzia zegoen. Beronek, garbizalea izanik ere, tradizio zahar eta herrikoari lotuta ikusten zuen jarraitu beharreko eredua. Txomin Agirre gehienbat bigarren korrante honen barruan kokatu beharko genuke. Garbitasunaren kontuaz oso arduratuta zegoen; hitz eta esaldien jatortasuna bilatzen zuen, baina Aranaren neologismorik onartzeke, nahiz eta sarritan Larramendiren eragina nabaria izan.

Edozein modutan ere, bai batzuen bai besteen helburu nagusia euskara berpiztea zen, eta hori emaitzetan nabaritu zen. Ordurarteko lan erlijioso edota didaktikoek nagusitasuna galdu zuten, eta benetako literatura egiten hasi zen. Hortxe dugu adibide gisa Txomin Agirrerren obra. Bertan helburu didaktikoa eta tarteka mezu erlijiosoak begi bistakoak izan arren ezin zaio balore literariorik uka.



IZAERA

Garai hartako ingurugiroari buruz aipatutako horiek esan ondoren, azter dezagun orain Txomin Agirrerren izaera.

Honi buruz dakigun gehiena Gasteizko Seminarioan ikaskide izan zuen Azkuerekiko erlazioari esker jasota dago. Batetik, ondarrutarra hil zenean Azkuek bere ohorez egin zuen hitzaldia dugu, eta bestetik, bizitzan zehar, adiskidetasun leial bati dagokionez, elkarri bidali zizkioten eskutitz ugariak daude. Bion arteko konfidantza handi bat ikus dezakegu harreman hauetan. Hirugarren argibide bat ere aprobetxa liteke Txominek bere obretan zuzen edo zeharka adierazten dituen iritziena, alegia.

Informazio-iturri hauetan oinarrituta, Txomin Agirrerren nortasun ezaugarri nagusiak aipatzen saia galtezke:

—Zintzotasuna. Hona Azkueren hitzak:

Seminario'ko urte alai aietan odolgorri giñanok, sarberritan beintzat, batean zutik bestean belauniko, okerreriarekin baten ordaiña artzen genuen artean, Agirre odol-zurbilla etzan bein ere bide zuzenetik ateratzen, ta elizan izan ezik bein ere enuen belauniko ikusi (Azkue (1920): *Itzaldiak*. «Agirre beretergoan». Donostia, 72. or.).

R.M. AZKUE

Agirrek eta Azkuek Gasteizen ezagutu zuten elkar, apaizetarako ikasketak egiten hango Seminarioan egon zirenean. Han adiskidetu ziren, ata gero, bizitzan zehar, elkarren arteko eskutitzeta ederra utzi ziguten. Jaiotzez, urte berekoak ziren. Txomin nahiko gazterik hil zen (56 urterekin); Azkue, ostera —osasu sendokoa izaki—, Agirre baino 31 urte gehiago bizi izan zen, 1951 arte.



—Apaltasuna. Ezaugarri nabarienetakoa zen, dirudienez. Sarritan Azkueri ematen zizkion bere lanak, argitaratzeko edo zakarrontzira botatzeko, bere irizpidearen arabera:

... Sin prejuicio de que mañana te remita algo para «Euskalzale» ahí van esos versos, o lo que fueren... Por supuesto, si no te parecen bien, échalos al cesto y se acabó (Zubikarai, A. (1970): *Domingo de Agirre*, in: La Gran Enciclopedia Vasca. IV, 542).

—Ezkortasuna/Umorea. Azkuek ezkor eta makal samartzat zeukan Agirre; baina, bestalde, bazekien Txominek zer zen umore fin eta ironikoa:

... te remito esta especie de carta, como dirían los académicos de la lengua española, para que hagas de ella (de la carta por supuesto) lo que te de la foral gana (Ib., 540. or.).

... Después de cinco o seis horas de confesionario muy pocas ganas suele haber de escribir. Creo que estarás conforme conmigo, si has sufrido alguna vez tales latas (Ib., 542. or.).

—Prestutasuna. Azkuek dioenez, zein dialektologi lanetarako zein arazo pertsonalen bat konpontzeko Agirregana jotzen zuenean, beti aurkitzen zuen bere adiskidea laguntzeko prest, era jator eta zabalean.

SABIN ARANA

Eusko Pizkundearen barruan (1876-1936) Aranak abertzaletasunarekin indarberritu egin nahi izan zuen euskaltzaletasuna ere, baina beti ere molde jakin baten barnean. Agirrek maiteago izan zuen, hizkuntz ereduari zegozkionetan, Azkueren maisugoa, Aranarena baino.



PENTSAERA

Hiru ezaugarri hauek osatzen dute nagusiki Txomin Agirreren pentsaera: Euskaltzaletasunak, Abertzaletasunak, Kristautasunak. «Euskaldun-fededun» banaezinezko hitz bikotea zen berarentzat.

Euskaldunak euskaraz egin behar zuen beti eta ondo, erdarakadarik gabe; gero, Euskal Herria maitatu eta defendatu eta, denaren gainetik, kristau zintzoa izan.

Hiru ardatz nagusi hauen ondoan badaude, jakina, beste osagai garrantzitsu batzuk, hala nola herri xehearen eta bizimodu apaleko jendearen defentsa, hala behar zenetan jauntxo eta aberaskumeeekin kontrajarriz.

Matxismo-kutsua ere igertzen zaio. Agian ez da bidezkoa duela hainbeste urte emandako iritziak gaur eguneko ikuspuntutik aztertzea, baina hor daude *Kresala* elaberrian narratzaileak emakumeei buruz botatakoak: *Emakumeak, biziko badira, jarduna naitanaiezkoa dabie*. (XVII. kap., 124. or. Labayru-ren edizioan, 1986). Eta gerotxoago:

... goiko ta beko bizilagunakaitik, txalopa jaubeagaitik, erakusleakaitik, osagilleagaitik, udaletxeko agintariakaitik; txankame, txotxapaindu, buztanikara, diruzale, andinaiko, koipelustre, ekin beti ta eragin mingain zorrotzari. Jakingo leukie barri edo albiste bat lurpean gordeta egongo balitz be, ta uskeria izan daroe naikoa luzaroko jardun gogotsuetan egoteko (Ib., 125. or.).



ZUMAIA

Osasun ahulekoa eta sosegu handikoa zen Txomin Agirrerenentzat, Zumaia izan zen bere bizileku aproposa. Han ematen zituen ia bere apaiz-urte guztiak, eta bertatik idatzi zituen Euskal-Herria —mendi eta itsaso— isplatu nahi izan zuten obra haiek.

Txomin Agirrek beti defendatu zituen, su eta gar, Euskal Herriko bi tradizio-bizimodu nagusiak, baserrikoa eta itsasaldekoa, eta hori bere idazlanetan agertuko zuen argi eta garbi.

Aparteko aipamena merezi du ondarrutarrak euskal gaiekiko ardura adieraziz kultura zereginetan izan zuen partaidetzagatik. Inon euskararen aldeko elkarte edo aldizkaririk bazegoen hantxe egongo zen Txomin partaide edo laguntzaile gisa. Adibide batzuk jarriko ditugu:

—*Euskal Herriaren Alde* aldizkariaren fundatzaile izan zen Arturo Kanpion, Karmelo Etxegarai eta Julio Urkixorekin batera.



—*Euskalzale* bizkaierazko aldizkariarekin harreman sakona zeukan. Bertarako lan ugari egiteaz gainera, erosle eta harpidedun bila ibiltzen zen alde batetik bestera.

—*Ibaizabal, Euskal-Esnalea, RIEV*-en ere argitaratzen zituen lanak.

1918an gertaera handi bat egon zen Euskal Herrian: Eusko Ikaskuntza elkarteak Oñatiko lehen batzar ospetsuan Euskaltzaindia sortzea erabaki zuen. Hantxe egon zen ondarrutarra euskarari zegokion atalaren zuzendari. Lehen lau euskaltzainak Azkue, Kanpion, Eleizalde eta Urkixo izan ziren. Hurrengo urtean beste zortzi izendatu ziren, hauen artean Txomin Agirre.

Ezin izan zuen, baina, batzar askotara azaldu. Osasun aldetik gizon makal samarra izaki, ordurako gaixoak jota zegoen, bizitzan zehar egindako lan handiak makalduta, eta lau bileratara agertu zen, 1920.eko urtarrilaren 14ean hil zen arte. Heriotza, Zumaiako kaperau-etxean etorri zitzaion, eta hark Euskaltzaindian lagatako hutsunea Seber Altubek bete zuen.

EUSKALZALE (1897-1899)

Tx. Agirrek hurbiletik segi izan zituen Azkue adiskidearen lanak, eta beronek sorturiko *Euskalzale* aldizkarian lankide izan zen.

TESTUINGURU HISTORIKOA

Txomin Agirre benetako lehen euskal nobelagilea da. Europako korrante literarioek ez zuten euskarazko produkzioan isladarik izaten. Orokorki hitz eginez, elaberrigintza modernoaren sorrera XVII. mendeko Espainiako «Novela Picaresca» delakoan kokatu beharko genuke, askoren ustez. Hasiera honek XVIII.ean Ingalaterran izan zuen jarraipen indartsua, eta XIX.ean zabaldu zen beste herrialdeetara. Euskal Herrian, ordea, lehen elaberria ez zen 1897ra arte gauzatu, Txomin Agirrek *Auñemendiko lorea* idatzi zuen arte.



Badauzka lan honek aintzindari batzuk, baina ezin ditugu egiazko nobelatza hartu:

—*Mogelen Peru Abarka* (1802) elaberria baino gehiago Berpizkundegaraiako elkarrizketen antzekoa da. Erdi Aroko «Relatos enmarcados» izenekoekin ere pareka liteke.

—Daskonagerreren *Atheka gaitzeko oihartzunak* (1870) frantsesetik itzulita dago.

—Elizanbururen *Piarres Adame* (1889) eta Azkueren *Bein da betiko* (1893) laburregiak dira elaberrizat hartuak izateko.

Beraz, Txomin Agirre dugu lehen euskal nobelagilea, bere ohiturazko eta kondairazko elaberriekin, eta berauei esker da ezaguna, bestelako lan laburrago batzuk egin bazituen ere.

ALDIZKARIETATIK LITERATURARA

Aldizkarietatik eskaintzen zituzten erraztasunengatik, Tx. Agirreraren literaturako hiru lan handienak aldizkarietan agertu ziren lehenengoz osorik edo partez: *Auñemendiko Lorea*, *Euskalzale*-n (1898); *Garoa*, *RIE*-n (1907-1912), eta *Kresala*, *Euskal-Eria*-n (1901-1905).



Euskararen kalitateari buruzko eztabaidak hain gogorrak ziren garai hartan, euskara estandararen beharra somatzen hasten zenean, neologismo-zaletasuna eta herrikoitasuna kontrajartzen ziren sasoian tokatu zitzaion Txomin Agirrerri idazle-bizimodua egitea. Bera ez zen batere istilu-zalea, eta euskara herrikoiei eta aberatsaren alde apustu eginez idaztea erabaki zuen, bere lan nagusiak, *Kresala* eta *Garoa* elaberriak, bata bizkaieraz eta bestea gipuzkeraz emanez.

Honainokoak gogoan ditugula, jo dezagun orain Txomin Agirrerren lan handi eta txikiei buruzko beste zenbait argibide ematera.

Elaberriengatik da ezaguna hura. Hiru idatzi zituen osorik eta laugarrena egiten hasita zegoen, heriotza heldu zitzaionean: *Añemendiko lorea* eta *Kresala* bizkaieraz eta *Garoa* eta amaitu gabeko *Ni eta ni* gipuzkeraz. Erdiko biak dira ospetsu eta aipagarriak.

KULTUR LAGUNARTEAN

Euskal Herriko kultur lagunartean oso onartua izan zen Txomin Agirre bere garaian «Euskai-Esnalea» elkarteko zuzendaritzakoa izan zen, eta Euskaitzaindia sortzean lehenengo euskaitzain aukeratuen tartetakoa. Hemen damagun argazki hau ia klasikoa da: K. Etxegarai, A. Kanpion, J. Urkixo, Tx. Agirre. S. Mujika eta J.K. Gerra (ezkerretik eskuinera).



LEHEN NOBELA

Auñemendiko lorea 1897an argitaratu zen lehen aldiz, *Euskalzale* aldizkarian. Hurrengo urtean bertako inprentan liburu-moduan atera zuten. Harez gero ez zen berriro 1966rarte publikatu. Hasieran, *Riktrudis* zeukan izentzat. Kondairazko nobela honetan Txomin Agirrek zazpigarren mendean bizi izan zen Riktrudis santaren bizitza kontatzen digu.

Askok aipatu dute *Auñemendiko lorea*-k Navarro Villosladaren *Amaya o los vascos en el siglo VIII* liburuarekin duen antza.

Agirrereren nobela honek ez zuela, inola ere, *Kresala* eta *Garoa*-ren ospea lortu esan behar da, eta bere garrantzia, hain zuzen, lehen euskal elaberria izatean datzala.



KRESALA (1906)

Kresala lehenengoz *Euskalerrria* aldizkarian argitaratu zen, zatika (1901-1904). Bigarrenez, 1906an, Florentino Elosuren Durangoko inprentan. Idazleak berak dioenez, ohiturazkotzat jo dezakegun elaberri honen bidez arrantzale-jendeari monumento handi bat egin nahi izan zion Agirrek, «ezagutuagoa, errukituagoa eta maitatuagoa» izan zedin, bere hitzetan. Izan ere, amodiozko istorioa tartean dagoela, arrantzaleen eta kostaldeko herrien ohiturak agertzen zaizkigu bertan, dena gorespen eta laudorioz beteta.

Batzuk idazlan honetan Pereda-ren gaztelerazko *Sotileza*-ren eragina ikusten dute.

Kresala elaberrian argi eta garbi azaltzen dira Txomin Agirrereren ideologia osatzen zuten hiru ardatz nagusiak: Euskaltzaletasuna, abertzaletasuna eta kristautasuna. Idazlearen iritziak narratzailearen ahotik edota pertsonala on eta jatorren esanetan agertuko dira.

KRESALA (1906) *GAROA* (1912)

Bi obra nagusi hauen liburu gisako lehen edizioak Durangoko Florentino Elosuren moldiztegiaren agertu ziren. Geroztik beste seina argitaraldi ere izan dituzte (1988a arte behintzat).

GAROA (1912)

Garoa lehenengo aldiz RIEV-en argitaratu zen, zatika, 1907tik 1912ra bitartean, azken lau kapituluak salbu. Bigarren argitaraldia Florentino Elosuren inprentan egin zen 1912an, Durangon.

Kresala-n, bizkaieraz, Itsastarren bizimodua agertzen bazaigu, *Garoa*-n, gipuzkeraz, baserritarrena azaltzen da. Oñatiko Uribarri auzoan kokatuta dago istorioa.

Honela, Txomin Agirrek ohiturazko bi elaberri hauekin omenaldi handia egin nahi izan zien Euskal Herriko hizkuntza eta tradizioei gogorren eutsi dieten arrantzale eta baserritarren kolektiboai.

Azken elaberri honetan Peredaren gaztelerazko *Peñas Arriba*-ren eragina ikusten dute batzuek.



Badago betidanik nahikoa eztabaidatua izan den auzi bat: zein ote da hobea, *Kresala* ala *Garoa*? Biok beste lan guztien gainetik daude, argi eta garbi, baina lan nagusitzat bat bakarra hartzekotan, zein?

Garoa estilo aldetik agian landuagoa da, erromatikoagoa ere bai, *Kresala*, berriz, biziagoa, errealagoa. Txomin Agirrek berak esan omen zuen behin, *Kresala*-ren arrakasta ikusita, beste elaberri «hobe» bat prestatzen ari zela, baina gehienetan ez da idazlea bera bere lanen kalitatea neurtzeko egokiena irakurle kopuruari begiratuta, *Garoa* ei da irakurriena, argitaraldiak kontutan harturik.

Bakoitzak bere konklusioak atera ditzala nobela biak irakurrita. Denaren gainetik adierazi behar dena da, lan biak ederrak direla eta beste guztiek baino maila hobea daukatela.

OÑATIKO URIBARRI

Garoa-ko joan-etorrien gertagunea Oñatiko auzo hauxe izan zen, baina Oñati-alde hauek ez ziren idazleak sobera ezagutuak. Bitxikeria jakingarri bezala, zera gogora liteke: Agirrek bertatik bertara sekula ikusi ez zituen Aizkorri eta Urbia inguruak deskribatu zizkigula bere elaberrian.



11

AZKEN NOBELA, ETA BESTELAKOAK

Ni eta ni, Txomin Agirre hil aurretik idazten hasi zen laugarren elaberria da. Kondairazkoa izateko bidean zegoen, *Auñemendíko lorea* bezalaxe, eta kontaeraren oinarria Erdi Aroko Oinaztarren eta Ganboatarren arteko borroka zen. Kapitulu batzuk *Euskal Esnalea* aldizkarian argitaratu ziren.

COLEGIO DE MARIA Y JOSE

Zumaiaiko ikastetxe honetako kaperaua izan zen bere apaiz-bizitza ia osoan Txomin Agirre. Maite zituen bertako bake-giroa eta lasaitasuna, eta maite zuten bera era hango moja, ikasle eta gurasoek. Haren liburutegia ere hementxe dago, maitasunez gordeta.



Badauka, Txomin Agirrek, elaberriez gain, beste lan laburrago ugari, bai bizkaieraz bai gipuzkeraz. Batzuk, aipatuko ditugu adibide gisa:

—Garai hartako aldizkarietan sakabanatutako artikuluak (*Ibaizabal*, *Euskalzale*, *Euskal Esnalea*, *RIEV*-en, etab.).

—Oierkiak: «Ai balekite», «Ama bat», «Sarako lorea», etab.

—Herri-narrazioak: «Maiton Itzontzi», «Anton Betozko», etab.

—Histori lanak: «Larramendiren bizitzaren berri labor bat», etab.

—Itzulpenak: Kanpionen «Larraldeko lorea» antzerki lana, Arzaken lanak ...

—Sermoi ugari.

—Erdarazko lanak.

Aita Oinandiak, Txomin Agirrerentzako omenaldi gisa, lan labor hauetako asko, ez denak, hartu eta bilduma ederra egin zuen Ondarrak izeneko liburuan. Sarrera luze baten ondoren, honela egituratu zuen bere lana: 1) Gertirudiak: Txominen elaberrietako zati onenak, bere ustez. 2) Olerkiak. 3) Ipuiñak. 4) Eliz gaiak. 5) Kondaira-kimak.

HILOBIA

Bere egoitza maitea izan zuen Zumaian du Txomin Agirrek bere hilobia era. Heriotzak ez du handitu baizik egin idazle honen balio literario eta historikoa. Azken urteotan agertu dira, izan era, beraren obrari eskaini zaizkion azterketa lanik ederrenak.